



**IRIZPEN ZK.: D21-006**

**IRIZPENA, HIRI LURZORU FINKATU GABEKO EREMU BATEN HIRIGINTZA-GARAPENAZ ARDURATU BEHAR DUEN MERKATARITZA-ETXE SUSTATZAILE BATI UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEAREN GAINEKOA.**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGO:** [...]ko Udalak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskari-idazkiak honako hau dio:

*«2021eko martxoaren 26an Udaleko Erregistro Nagusian sartu zen udalerrri horretako hiri lurzoru finkatu gabeko eremu baten hirigintza-garapenaz arduratu behar duen merkataritza-etxe sustatzailearen izenean aurkeztutako idazki bat. Idazki horren bitartez udal agiritegi publikoetan (biztanleen errolda, OHZ...) agertzen den informazioa eskatzen da planeamenduarekin erabat bateraezinak diren higiezin legezko okupatzaileei eta funtzionamenduan egonda ere bateraezinak diren jarduera ekonomikoei buruz; izan ere, biztanle horiei berriro ostatua eman beharko zaie, edo jarduerak lekualdatu. Honako informazio hau eskatzen da: familia-unitateko kideen izenak, kopurua eta etxebizitzaren edukitza-araubidea.*

*Eskari horrek zerikusia du ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 23.7 artikulutik eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren 154. artikulutik eta Lege horren bigarren xedapen gehigarritik eratortzen den betebeharrarekin. Hain zuzen ere, manu horien arabera, esparrua garatzeko beharrezkoa den hirigintzako jarduketa-programan etxebizitzak legez okupatzen dituztenei beste bizileku bat emateko programa bat jaso behar da, bai eta okupatzaile eta jarduera ekonomiko horiek guztiak jasoko dituen zerrenda bat ere; hala izanik, interesdunak dienez, 157 c) artikulua arabera, urbanizatzeko jarduketa-programa baten proposamena egin nahi duen edonork «...herri-administrazioen erregistro eta artxiboetan dagoen informazioa eta agiriak kontsultatu ahal izango ditu, haien araubide juridikoa eta funtzionamendua erregulatzeko legeria orokorraren arabera».*

*Eibarko Udalak egindako antzeko kontsulta bati (CN08-030) erantzuteko Bulegoak 2008ko urriaren 9an azaldu zuenez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ez du baimentzen biztanleen udal erroldako datuak partikularrei lagatzea. Hala ere, hori ez da oztopo gaindiezina hirigintzako araudia betetzeko, are gehiago hirigintza-arloko egikaritzapenari buruzko auzi batean, zeinari buruz benetakotasun-printzipioaren garrantzia ageri-agerian geratzen baita Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zioen azalpenean bertan.*

*Hori guztia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak orduan irizpena eman zuen: horrenbestez, ez zen eragozpenik ikusten udalak berak, hirigintzako jarduketa-programa onartutakoan hasierako fase batean espedientera eraman zezan unitatearen garapenarekin bateraezinak diren etxebizitzetan erroldatutako pertsonen zerrenda. Horrela, zerrenda espedientean jasota egongo zen eta, sustatzailea interesdun legitimoa izango zenez, datu-babesaren ikuspuntutik ez zen oztoporik egongo*



*sustatzaileak espediente osoa eskuratu zezan eta jakin zezan zeintzuk ziren beste bizileku bat eskuratzeko eskubidea zuten pertsonak.*

*Hala ere, eta kontsulta hari erantzuna eman ostean araudian egindako aldaketak kontuan hartuta (besteak beste: abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena; abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), kontsulta berbera egiten da Udal honi eskatutako datu-lagapenaren gainean, datu horiek eskatu baitira hirigintzako jarduketa-programa batean sartzeko; bada, jakin nahi da Bulego honek zein irizpide duen gaur egun».*

**BIGARREN:** Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».*

Beraz, araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetzen zaio ea bidezkoa den ala ez hiri lurzoru finkatu gabeko eremu baten hirigintza-garapenaz arduratu behar duen merkataritza-etxe sustatzaile bati udal erroldako datuak ematea, hirigintzako planeamenduarekin bateraezinak diren higiezinen legezko okupatzaileei berriro ostatua emateko edo haiek lekualdatzeko.

Galderan azaltzen denez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak irizpen bat eman zuen (CN08-030) auzi hori aztertzeko. Hala ere, datu pertsonalen babesaren arloan aldaketak egon dira, eta honako arau hauek aplikatu behar dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Aurrerantzean Erregelamendu Orokorra) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (3/2018 Lege Organikoa). Beraz, aurkeztu den auzia berriro ere aztertu behar da.

Abiapuntu gisa zera esan behar dugu: Erregelamendu Orokorrak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoaren araubide juridikoarekin alderatuta dakarren berrikuntzaren ondorioz ikuspuntua aldatu behar da datu pertsonalen babeserako funtsezko eskubidea taxutzen duten printzipioei dagokienez, eta bereziki eskubidearen ardatz nagusia adostasunaren printzipioa izateari dagokienez. Hain zuzen ere, 15/1999 Lege Organikoan legitimazioaren oinarritzko araua adostasuna zen, eta gainerako kausa legitimatzaileak salbuespen ziren; arau berriekin, aldiz, aldaketa esanguratsua gertatzen da: Erregelamendu Orokorren 6. artikuluan tratamendurako



legitimazioa ematen duten sei kausetariko bat da adostasuna, eta gainerako kausen maila berebean jasotzen da.

Berrikuntzen artean nabarmendu behar da, halaber, tratamenduaren legitimaziorako kausen artean interes legitimoa sartzeko delak. Horri dagokionez, 6.1 f) artikulua ezartzen du tratamendua zilegia izango dela baldin eta *«beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoak erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarritzko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean»*.

Kontuan hartu behar da gauza bat: 15/1999 Lege Organikoak ez zuen aipatzen 95/46/CE Zuzentarauaren 7 f) artikuluan jasota dagoen interes legitimoa; hala ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2011ko azaroaren 24ko epaian deklaratu zuenez, manu horrek zuzenean ukitzen zuen Espainiako zuzenbidea; horregatik, lehengo araudiarekin ere uste zitekeen interes legitimoa oinarri nahikoa zela datuen tratamendua egiteko.

## II

Kasu honetan argitu behar den auzia da ea zilegi den Udalak legezko okupatzaile izanik planeamenduarekin bateraezinak diren higiezinaren okupatzaileei buruz biztanleen erroldan dagoen informazioa entitate pribatu bati lagatzea. Zehazki, honako informazio hau da: familia-unitateko kideen izenak eta kopurua eta etxebizitzaren edukitza-araubidea. Informazio hori biztanleen udal erroldatik soilik atera ahal da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 16.1 artikulua honela definitzen du udal errolda: *«Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen frogara dira»*.

Udal erroldako datuen tratamendua TAOLen 16.3 artikuluan dago araututa:

*«Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira»*.

TAOLen 16.3 artikulua luze-zabal interpretatu zuen Konstituzio Auzitegiak 2013ko urtarrilaren 31ko 17/2013 epaian, eta artikulua hori Konstituzioarekin bat datorrela zehaztu zuen. Epaiak dioenez, udal erroldaren xedeak dira udalerriko biztanleria zehaztea, bizilagun izaera lortzea eta udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen frogara ematea. Horren haritik, 16.3 artikulua onartzen du udal erroldako datuak lagatzea beste Administrazio Publiko batzuei, halakorik eskatzen badute, eta interesdunen adostasunik gabe gainera, baldin eta datu horiek beharrezkoak badira administrazio horiek beraien eskumenez baliatu daitezkeen edo egoitzaren edo helbidearen datua oso garrantzitsua bada.

Biztanleen erroldako datuak Administrazio Publiko ez diren eskatzaileei lagatzearen kasuan, doktrinaren irizpidea da 16.3 artikulua ez lukeela lagapena babestuko; beraz, ukituen adostasuna eskatu beharko litzateke, salbu eta datuen lagapenerako bidea emango duen lege-mailako arau bat badago.

Kasu honetan, sektore-araudia ekainaren 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa da. Lege horren 2. xedapen gehigarriak ezartzen duenez, zenbait hirigintza-



jarduketa egiterakoan ohiko bizileku diren etxebizitzak legez okupatzen dituztenei beste bizileku bat eman behar zaienean, bermatu egin beharko da beste bizileku bat emateko eskubidea. Halaber, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 23.7 artikuluan berralojamendu-eskubidea arautzen du, eta zera ezartzen du: *«Urbanizazio Jarduneko Programan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera berralojamendu-eskubidea duten pertsonen eta horien etxebizitzaren zerranda, eta eskubide hori gauzatzeko aukeratutako etxebizitzaren eta hirigintza-erakigarritasunen zerranda txertatuko dira eranskin gisa, horien egiaztapen dokumentala eta faktikoa aparte utzi gabe»*.

Hala, 2/2006 Legearen 157. artikulua, urbanizatzeko jarduketa-programetako ekimenari buruzkoak, zera ezartzen du e) apartatuan: *«lurra aldi baterako okupatzeko baimena eman diezaioke, udalak, urbanizatzeko jarduketa-programa baten proposamena egin nahi duen edonori, behar duen informazioa jaso dezan, betiere desjabetzeari buruzko legerian xedatutakoaren arabera. Halaber, herri-administrazioen erregistro eta artxiboetan dagoen informazioa eta agiriak kontsultatu ahal izango ditu, haien araubide juridikoa eta funtzionamendua erregulatzeko legeria orokorraren arabera»*.

Beraz, ondorioztatu ahal da hirigintzako araudiaren ikuspuntutik sustatzaileak irispidean izan ahalko lukeela eskatutako informazioa; hala ere, datu horiek biztanleen udal erroldatik hartu behar direnez, TAOLen 16.3 artikulua ezartzen duen muga topatuko genuke, alegia, datuak beste Administrazio Publiko batzuei soilik laga ahal izatea.

### III

Horrenbestez, bere garaian emandako CN08-030 irizpenaren ildotik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ustez, arestian azaldutako ondorioa ez da oztopo gaindiezina hirigintzako araudia betetzeko.

Horren haritik, datuen babesaren araubide juridikoari buruz hasieran azaldu diren alderdi berriak gogoan hartuta, Bulegoaren iritziz, kontsultaren xede den kasuan, datuak komunikatzearen oinarria informazioaren eskatzailearen interes legitimoa izan daiteke, hau da, hirigintzako garapenaz arduratzen den merkataritza-etxe sustatzailearena, Erregelamendu Orokorraren 6.1 f) artikulua babespean.

Hasieran esan dugunez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2011ko azaroaren 24ko epaian nahiz Erregelamendu Orokorrean hainbat alderdi berri azaltzen dira 95/47/CE Zuzentarauan agertzen den araudiari dagokionez, eta alderdi berri horiek aztertu beharko dira kasu honetan interes legitimoa aintzat hartu ahal izateko. Eta hori guztia zeren legitimazio-oinarri horren arauak ezartzeko haztapen-froga bat egitea beharrezkoa baita, zehaztu ahal izateko ea eskatzailearen interes legitimoa gailentzen den ukituen datuak babesteko eskubidearen aurrean.

Horri dagokionez, 29. Artikuluko Lantaldeak 2014ko apirilaren 9ko 6/2014 irizpenean dioenez, honako faktore hauek hartu beharko dira kontuan: interes legitimoaren izaera eta iturria zein diren eta ea tratamendua interes publikokoa den. Gainera, kontuan hartu beharko da horrek guztiak zein ondorio izango dituen interesdunarentzat eta hark arrazoizko zein iguripen izan ditzakeen bere datuekin gertatuko denari buruz, eta kontuan hartu ere



interesdunaren gainean eragin bidegabea muga dezaketen berme gehigarriak, esate baterako datuak minimizatzea.

Kasu honetan, badirudi interes legitimoa dagoela; izan ere, eskatzen den informazioa beharrezkoa da 2/2006 Legean ezarrita dagoen hirigintzako jarduketa-programa betetzeko eta ostatua berriro eman ahal izateko, hirigintzako araudian ezarrita dagoen prozeduraren bermekin.

Horri dagokionez nabarmendu behar da bigarren xedapen gehigarrian jasotzen dena, bertan ezartzen baitira berriro ostatu emateko edo lekualdatzeko kasuetan aplikatu beharreko arauak. Xedapen horren 3. apartatuan xedatzen denez, urbanizatzeko jarduketa-programa idaztean planeamenduarekin erabat bateraezinak higiezin legezko okupatzaileak zerrenda batean jaso beharko dira, eta okupatzaile horiek alderdi-izaera edukiko dute espedientean ondorio guztietarako. Gainera, birpartzelazio-proiektuetan legezko etxebizitza-okupatzaileen zerrenda jasoko da berariaz, eta kalte-ordaina izateko akordioak ere bai. Xedatzen da, halaber, beste bizileku bat emateko edo lekuz aldatzeko hitzarmen-proposamenak udalari igorriko zaizkiola, txosten teknikoa egin ostean onar ditzan, eta gero interesdunari jakinaraziko zaizkiola, bere proposamena egin dezan. Hau da, ezartzen den prozedurak bidea ematen dio interesdunari bere interesak defendatzeko araudian ezarritako bermekin.

Bestalde, Erregelamendu Orokorren 6.1 f) artikulua xedatzen duenez, agintaritza publikoek legitimazio-oinarri juridiko hori ezingo dute aintzat hartu beren eginkizunak betetzean. Arau orokor hori 47. kontuan hartuzkoan, interes legitimoari buruzkoan ere azaltzen da. Dena dela, kasu honetan aztergaia ez da tratamendu-arduradunaren interes legitimoa, baizik eta Administrazioarekin zerikusia duen hirugarren baten interesa; alegia, hirigintzako planeamenduaz arduratzen den sustatzailearen interesa. Horren haritik, 3/2018 Lege Organikoaren hamargarren xedapen gehigarriaren aztergaia da datuen komunikazioa, hori 77.1 artikuluan aipatutako subjektuek egiten dutenean, eta hain zuzen ere, subjektu horietako bat Toki Administrazioak dira. Bada, xedapen horretan zera ezartzen da:

*«Zuzenbide pribatuko subjektuek datu pertsonalak eskatzen dizkietenean, lege organiko honen 77.1 artikuluan aipatzen diren arduradunek datu pertsonal horiek komunikatu ahal izango dituzte, baldin ukituen adostasuna badute edo ikusten badute eskatzaileen interes legitimoa ukituen eskubide edo interesen ginetik dagoela, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.f) artikulua arabera».*

Kasu honetan, informazioa interes legitimo argi baterako eskatzen da, merkataritza-etxe sustatzaileak ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren eta Lege hori garatzeko araudiaren bidez ezartzen zaizkion eginbeharrak betetzeko.

Ondorio gisa, aztertu den kasuan, datuak babesteko eskubidea gorabehera, hirigintza-sustatzaileek irispidean izan ditzakete hirigintzako planeamenduarekin bateraezinak diren higiezin legezko okupatzaileen datuak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1 f) artikuluan arautzen den interes legitimoa dagoelako.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 10ean